



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2018ko URRIAREN 30ean EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2018ko urriaren 30ean, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20:25 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin dela etorri aurretik adierazi du: Antonio EliceGUI Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDIA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2018.07.27ko Udalbatzarraren akta.
- 2018.09.14ko Udalbatzarraren akta.
- 2018.09.26ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2018.urtekoak (162-278)

3. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal Erregelamendua: hasierako onspena

4. 2019ko Udal Ordenantza Fiskalak: hasierako onspena

5. 2017ko Udal aurrekontuaren likidazioa: Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena zuzendu dela komunikatzea.

6. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2018.07.27ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.09.14ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.09.26ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu aktak onartu ditu.

BIGARREN PUNTUA.

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2018.urtekoak (162-278)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal Erregelamendua: hasierako onspena

ETXEZ	ETXEKO	LAGUNTZA	REGLAMENTO	MUNICIPAL
ZERBITZUA	ARAUTZEN	DUEN UDAL	REGULADOR	DEL
ERREGELAMENDUA			AYUDA A	SERVICIO DE
			DOMICILIO	

Egungo Etxez Etxeko Laguntza El actual reglamento municipal del



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantziko aldaketek dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea

Servicio de Ayuda a Domicilio aprobado en base al marco legal establecido en la Ley de Servicios Sociales de 1996, requiere una adaptación a los importantes cambios legislativos que se han producido en los últimos años.

La aprobación tanto de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de Autonomía personal y Atención a las personas en situación de dependencia, como de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, han tenido una repercusión notable en el ámbito de los servicios sociales.

En concreto la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio, y para ello:

En su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye el Servicio de Ayuda Domiciliaria, cuya provisión es competencialmente atribuida a los Ayuntamientos.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en desarrollo de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales,

garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakatua, bizi-itxaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremanetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonen beren mendetasun mailakatuak laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziako sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideek, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo

delimita el derecho subjetivo mencionado, regulando las condiciones, criterios y procedimientos de acceso a las prestaciones y servicios establecidos en el catálogo de la Ley de Servicios Sociales.

Además de dichos cambios normativos, también se ha dado una evolución en la realidad social; el aumento demográfico progresivo de las personas mayores, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad en nuestra sociedad, además del cambio en las relaciones familiares como agentes de protección y del desarrollo de los servicios sociales. Son ellos algunos de los factores que están impulsando la definición de los servicios necesarios para garantizar una vida plena, aún más en niveles graves de dependencia y de falta de apoyo social.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia. Pero el entorno domiciliario, sus accesos, los servicios de apoyo en la comunidad, etc. exigen la toma en cuestión de muchos aspectos que condicionan y determinan las posibilidades de la persona dependiente en el ejercicio de su desarrollo vital.

Junto a esa necesidad de dar atención a las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia se están generando situaciones sociales complejas, y existen



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrezanek oinarritzko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.

Horrela, eguneroko bizitza jasangarriago egiteko, babes eta laguntza-zerbitzuak eskuragarri izateaz gain, zaugarritasun edo ahultasun sozialeko egoerak jasaten dituzten edo mendetasun egoeran dauden pertsonak beren etxeetan eta komunitateetan haiek zaintzeko zerbitzua izatea ezinbestekoa da, askotariko beharrezanetara egokitzeko eta denbora tarte ezberdinetan zatikatzeko gai izango dena, larrialdiak bere gain hartuko dituen eta zerbitzuaren beharretan eman litezkeen aldaketei bizkortasunez erantzun ahalko diona. Zentzu horretan, etxez etxeko laguntza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartean eta familian. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitaterako eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

Xede horretarako, araudi honek 2017. urtean Gipuzkoako udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaian adostutako itunak jasotzen ditu, honako gaien inguruan; intentsitate malguagoak, zerbitzua emateko aukera

personas o familias en situación de debilidad o vulnerabilidad social, que precisan ayuda domiciliaria para poder responder a sus necesidades de atención básica.

Así, además de disponer de servicios o elementos de protección y asistencia para hacer la vida diaria más llevadera, es imprescindible tener un servicio para atender en su propio domicilio y en su propia comunidad a las personas en situación de dependencia o que estén en situación de debilidad y vulnerabilidad social, adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asuma intervenciones de urgencia y que pueda responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio. En este sentido, la ayuda a domicilio es un servicio que sigue teniendo una importancia estratégica en el Sistema Vasco de Servicios Sociales para proporcionar apoyos para la convivencia personal y familiar en un contexto en el que estos apoyos son imprescindibles para la calidad de vida de muchas personas y para la conciliación de la vida familiar y laboral, particularmente en el caso de las mujeres. Es un servicio muy valorado por las personas usuarias y por el resto de su entorno familiar y vecinal, que garantiza la calidad de vida de muchas personas (personas mayores, personas dependientes, personas con cargas familiares importantes)

A tales efectos este Reglamento recoge los acuerdos que, durante el año 2017, los Ayuntamientos del Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa han acordado en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales, en aspectos como fijar intensidades más

zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.

flexibles, establecer la posibilidad de ofrecer el servicio, con carácter limitado, durante todos los días del año, afianzar la modalidad de acceso urgente y recoger el acceso de perfiles diferentes.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ez du Administrazio honetan laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk hasteko aukera alde batera uzten, bide berritzaileak izan daitezkeenak pertsonen eta beren bizitzarako beharizanen artean oreka bat izateko; betiere, eskumena duen organoaren oniritzia izanda.

La regulación del Servicio de Ayuda Domiciliaria no agota la posibilidad de que desde esta Administración puedan iniciarse otros servicios de asistencia personal, que supongan vías innovadoras de ajuste entre las personas y sus necesidades vitales, siempre y cuando estos otros servicios cuenten con el visto bueno del órgano competente correspondiente.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko etkez etxeko laguntza zerbitzurako sarbidea arautzen du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean eta arreta pertsonalizaturako plan bat landu denean.

Por tanto el presente reglamento municipal viene a regular el procedimiento de acceso de las personas al servicio municipal de ayuda domiciliaria, una vez que dichas personas han sido valoradas, les ha sido reconocido su derecho de acceso al servicio, y se ha elaborado un plan de atención personalizada.

Aurretik, galdera zuzendu da Udaleko web atariaren bidez.

Se ha sustanciado consulta previa a través del portal web municipal.

Zerbitzuaren prezio publikoari dagokionez, Erregelamenduaren 22. Atalean jasotakoarekin bat, aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz erabiltzaileak ordaindu beharreko etkez etxeko zerbitzuaren prezioa unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da.

En relación con la determinación del Precio Público del servicio, de conformidad con el artículo 22 del Reglamento, el precio del servicio de ayuda a domicilio a abonar por la persona usuaria de acuerdo con lo dispuesto en los apartados siguientes, vendrá determinado por la normativa municipal al respecto vigente en cada momento.

Gizarte Zerbitzuak, Enplegua eta Hirugarren Munduaren Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Previo Dictamen de la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Empleo y Tercer Mundo.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Idazkariak hitza hartu du: idazkaritzako txostenean jaso zuenarekin bat, gaur goizean txertatu da espedientean erregelamenduari dagokion memoria ekonomikoa.

Segidan, idazkariak aipatu memoria ekonomikoaren edukina laburtu du.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: aipatu memorian jaso diren zenbakiak azaldu ditu; zenbaki horietara iristeko, Gizarte Zerbitzuek gaur egun ematen diren etxez etxeko laguntza zerbitzuak erabili dira eta bi aukerak eman dira; batetik, zerbitzu horiek erregelamendu berriak proposatzen dituen prezioekin eta orduen gehienezeko intentsitateekin baloratu dira; bestetik, horri hiru erabiltzaile hipotetikoen eskaerak gehitu zaizkio.

Alkate andreak hitza hartu du: eginiko memoria ekonomikoaren zifrak direla eta, esan du egoki litzatekeela gaia mahai gainean uztea, berriro ere Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean aztertzeko; erregelamenduak aurrekontuen egonkortasunarekin bat egin ahal izateko, azterketa berri hori Udalak 2019 urterako onartu behar dituen aurrekontu orokorrekin batera egin beharko litzateke.

Idazkariak hitza hartu du: esan du hurrengo urterako aurrekontuak lantzen ari direla idazkaritzan eta, arazorik egon ezean, zirriborroa azaroaren 12an egin daitekeen ogasuneko informazio batzordean aurkeztu daitezkeela.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: ez ditu eragozpenak ikusten gaia mahai gainean uzteko; halaber, adierazi du memoria ekonomikoan jasotako datu batzuk berriro ere aztertu beharko liratekeela.

Alkate andreak hitza hartu du: proposatu du gaia mahai gainean uztea.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. Mahai gainean uztea Asteasu Udaleko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzen duen Erregelamendua.

LAUGARREN PUNTUA

2019ko Udal Ordenantza Fiskalak: hasierako onespina

2019. Urteko ordenantza fiskalei dagokionez, Asteasu Batuz Udal taldearen proposamena aztertu da. Hauek dira proposatu diren aldaketak:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskala

Hobariak:

- Ibilgailu elektrikoek % 50eko hobaria izango dute zerga kuotan.
- % 25a hobaria izango dute kotxe hibridoek ondorengo baldintzekin, zeinak agiri bidez egiaztatu beharko diren:
 - Hibridoa izatea (Argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin ibiltzen duena), etxetik bertatik homologatuta datorrena, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.
 - Etxetik dakarren homologazioaren arabera, gasa erretzen duen ibilgailua izatea, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.

Udalerrri honetan erroldan egon beharko duten interesatuek hobari hori aplikatzeko, eskaera egin beharko dute, ibilgailuaren fitxa teknikoa eta zirkulazio-baimena aurkeztuz.

Hobari hauek eskaera egiten den dataren hurrengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Hobariak:

- Lur sailak transmititzerakoan eta heriotzaren ondorioz egindako domeinua mugatzeko benetako gozamen eskubideak transmititzerakoan edo eratzekoan, hobari hau izango da:

- Kuota osoaren % 50a, ezkonkideek, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

bikoteetako partaideek, lehen graduko zuzeneko ondorengo ahaideek eta adoptatuek, betiere transmititutako ondasuna edo eskubidea jaraunse horietako baten ohiko etxebizitzari (eranskinak barne) badagokio.

- Hobariak erregu izaera du, hau da, eskaera egitea beharrezkoa da eta ez da aplikatuko, kitapen aitorpena epearen barne eta dagokion eran aurkeztu ezean.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak

H) Etxez etxeko laguntza zerbitzua:

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen arautegia

1.- Esparrua

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:

- a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.
- b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.
- c) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkaturako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkaturako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.
- d) Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokkeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Prezio publikoa

Gehienezko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

Astelehenetik Larunbatera	15.-€/ordua
Igandeak eta jai egunak	22,36€/ordua

4.- Ekarpenen koadroa

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

EAEAP sarrerak	LAGS sarrerak	Ekarpena
EAEAPren ≤%120	LAGSren ≤%75	%1,5
>%120-125	>%75-78	%4
>%125-130	>%78-81	%8
>%130-150	>%81-94	%15
>%150-175	>%94-110	%24
>%175-200	>%110-125	%35
>%200-225	>%125-140	%48
>%225-250	>%140-155	%61
>%250-275	>%155-170	%74
>%275-300	>%170-190	%87
EAEAPren >%300	LAGSren >%190	%100

5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren %100ri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren %40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren %30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

7.- Kobrantza

Zerbitzua hileroko kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

Udalerriko jabari publikoa norberak bakarrik edo modu berezian erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa

C) Udal kiroldegia eta probaleku erabilpena:

Kiroldegiko abonatuak:

Urte osokoa:

- Helduak 135,00
- Gazteak (16tik 21ra) 105,00
- Jubilatuak 80,00

Hiru hilabeteko abonua 65,00

Hilabeteko abonua 40,00

Eguneroko sarrera 3,00

Urteko ikastaroak:

- Aerobik 2 egunez (Abonatuak) 140,00
- Aerobik 2 egunez (Ez abonatuak) 165,00
- Aerobik 3 egunez (Abonatuak) 195,00
- Aerobik 3 egunez (Ez abonatuak) 220,00
- Bodyfit (Abonatuak) 195,00
- Bodyfit (Ez abonatuak) 220,00
- 3. adinekoentzat gimnasia (Abonatuak) 120,00
- 3. Adinekoentzat gimnasia (Ez abonatuak) 145,00
- Zunba (Abonatuak) 195,00
- Zunba (Ez abonatuak) 220,00
- Pilates (Abonatuak) 195,00
- Pilates (Ez abonatuak) 220,00
- Ciclo indoor (Abonatuak) 195,00
- Ciclo indoor (Ez abonatuak) 220,00
- Ciclo indoor gazteentzat (12-18 urte; Abonatuak) 95,00
- Ciclo indoor gazteentzat (12-18 urte; Ez abonatuak) 120,00
- Aerobik gazteentzat (12-18 urte; Abonatuak) 95,00
- Aerobik gazteentzat (12-18 urte; Ez abonatuak) 120,00

D) Asteasuko udal igerileku irekia:

Abono familiarrak (Tarifa Asteasu):

- | | | |
|---|---|--------|
| • | Guraso bat gehi seme-alaba bat | 80,00 |
| • | Bi seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak | 150,00 |
| • | Guraso bat gehi bi seme-alaba edo gehiago | 110,00 |

Abono familiarrak (Tarifa Orokorra):

- | | | |
|---|---|--------|
| • | Guraso bat gehi seme-alaba bat | 150,00 |
| • | Bi seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak | 250,00 |
| • | Guraso bat gehi bi seme-alaba edo gehiago | 200,00 |

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Alkate andreak hitza hartu du: aurreko puntuan onartutakoarekin bat, proposatu du iriztutako gaia bozkatzea, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen arautegia izan ezik; hortaz, proposamenetik kanpo utziko da Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen arautegia, aurretik diktaminatutako beste guztia mantentzen delarik.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. 2019. urterako Asteasuko Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketak hasierako izaeraz onartzea.

BIGARRENA. Gipuzkoako Hazienda Foralak arautzen dituen uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikulua dioena betetzeko, hartutako akordioa eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea, 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Informazio honen arauzko epean inolako erreklamazio edo oharkizunik gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betiko onartutzat hartuko dira, akordio berririk hartu behar izan gabe.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSGARREN PUNTUA

2017ko Udal aurrekontuaren likidazioa: Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena zuzendu dela komunikatzea.

2018/10/18an jasotako idatziaren bidez, Asteasuko Udalari jakinarazi zaio 2017ko aurrekontuaren likidazio datuen arabera, Udal honek ez zuela bete gastuaren araua; horren ondorioz plan ekonomiko-finantzario bat onartzera behartuta gaudela adierazi zaigu, 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluak ezartzen duenaren arabera.

Horren ondorioz, eskatu zaigu plan ekonomiko-finantzario hori Gipuzkoako Foru Aldundiari bildaltzea, errekerimendua jaso den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean, horretarako prestatutako aplikazio telematikoaren bidez (GUNEA).

Jasotako errekerimenduaren aurrean, hau adierazi zaio GFari:

LEHENA. 2016 urteko aurrekontu orokorren likidazioari buruz

Martxoaren 21eko 2017/070 Alkatetza Dekretuaren bidez, Asteasuko Udaleko 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartua izan zen. Likidazioaren espedientean Asteasuko Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2017ko martxoaren 20ko txostena eman zuen, egonkortasunaren txostena hain zuzen ere; horretan, eta 3.erregela izena duen Gastu Arauari dagokionez, 2016 urteko Gastu Konputagarriaren kopurua 1.662.296,77 eurokoa izan zen.

BIGARRENA. 2017 urteko aurrekontu orokorren likidazioari buruz

Martxoaren 15eko 2018/059 Alkatetza Dekretuaren bidez, Asteasuko Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartua izan zen. Likidazioaren espedientean Asteasuko Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko martxoaren 15eko txostena eman zuen, egonkortasunaren txostena hain zuzen ere; horretan, eta 3.erregela izena duen Gastu Arauari dagokionez, 2016 urteko Gastu Konputagarriaren kopurua 1.593.863,75 eurokoa izan zela jaso zuen.

2018/03/15ean egindako txostenarekin bat, Udal honek ez zuen betetzen aipatutako Gastu Araua; hala eta guztiz ere, ez zen plan finantzarioa egin eta bere ordez plenoari komunikazioa zuzendu zitzaion, 2018ko apirilaren 24ko 3.puntuan hain zuzen ere, likidazioan egiaztatu zelako betetzen zirela 2013/1 Foru Arauaren 5.artikuluko 4.paragrafoko hiru baldintzak: diruzaintza gerakina positiboa, zor publikoaren helburua, eta defizita helburua.

Une honetan, Asteasuko Udalak egiaztatu du 2017ko likidazioa onartutako espedientean jaso zen Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko martxoaren 15eko txostenean bi akats hauek jaso zirela:

- 3.erregela izena duen Gastu Arauari dagokionez, 2016 urteko Gastu Konputagarriaren kopurua 1.662.296,77 eurokoa izan behar zen, eta ez, ordea, 1.593.863,75 eurokoa.
- Gastu Araua ez betetzeagatik, ez zela plan finantzarioa egin behar, eta bere ordezkari plenoari komunikazioa zuzendu behar zitzaioa arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu zelako, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharrezko erregelak jasotzen dituen Jarraibideen 3.erregelaren ezarritakoarekin bat eta ez, ordea, 2013/1 Foru Arauaren 5.artikuluko 4.paragrafoko hiru baldintzak ematen zirelako.

Aurreko paragrafoetan jasotako akatsak zuzentzeko Asteasuko Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko urriaren 23ko txostena eman du, eta GUNEA izeneko aplikazio telematikoen bidez txosten hori helarazi zaio GFari, likidazioarekin batera doazen eranskinei dagozkien doikuntzekin bat.

Bere ondorioz, Asteasuko Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioaren ondoriozko egoera Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko urriaren 23ko txostenean jasotakoa izan zen. Horrekin bat, toki entitate honek betetzen zituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren 2017.urteko helburuak, baina ez, ordea, 2017.urteko gastuaren araua; hala eta guztiz ere, eta aipatutako Gastu Araua ez betetzeagatik, ez zen plan finantzarioa egin behar, eta bere ordezkari plenoari komunikazioa zuzendu behar zitzaion arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu zelako, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharrezko erregelak jasotzen dituen Jarraibideen 3.erregelaren ezarritakoarekin bat.

Gauzak horrela, honako eskaera zuzendu zaio GFari:

- ONTZAT EMATEA Asteasuko Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioaren ondoriozko egoera Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko urriaren 23ko txostenean jasotakoa izan zela, hots, toki entitate honek betetzen zituela aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren 2017.urteko helburuak, baina ez, ordea, 2017.urteko gastuaren araua; hala eta guztiz ere, eta aipatutako Gastu Araua ez betetzeagatik, ez zela plan finantzarioa egin behar, eta bere ordezkari plenoari komunikazioa zuzendu behar zitzaioa arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu zelako, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharrezko erregelak jasotzen dituen Jarraibideen 3.erregelaren ezarritakoarekin bat.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- EGINIKO ERREKERIMENDUA BERTAN BEHERA UZTEA.
- IZAPIDEAN ONARTZEA Asteasuko Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak 2018ko urriaren 23an eginiko txostena, likidazioarekin batera doazen eranskinei dagozkien doikuntzekin bat.

Amaitzeko, GFari jakinarazi zaio Udalbatzar honi komunikatuko zaiola Asteasuko Udaleko 2017ko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz Gastu Araua ez betetzeagatik, ez zela plan finantzarioa egin behar, eta bere ordezkari plenoari komunikazioa zuzendu behar zitzaiola arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu zelako, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharrezko erregelak jasotzen dituen Jarraibideen 3. erregelari ezarritakoarekin bat.

Hau da Udalbatzarrari zuzentzen zaion komunikazioa:

TXOSTENA

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

AURREKARIAK

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari, entitateko udalbatzarrari komunikazioa helaraziko zaiola, Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gipuzkoako toki entitateek 2017 ekitaldirako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharrezko erregelak onartzen dituen Jarraibidearen 3. erregelari ezartzen du gastuaren araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan hiru hiru apartatuetan aurreikusitako komunikazioa egin behar zaiola Udalbatzarrari.

Aipatutako xedapenek aurreikusitakoari erantzuteko egin da honako txosten hau.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- *2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.*
- *1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.*

- *Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016ko azaroaren 8koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan (2016/11/15eko GAOean argitaratua).*

FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN AZTERKETA ETA EBALUAKETA

2017 ekitaldiko aurrekontuan kreditu aldaketak egin ziren diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zirenak. Likidazio espedientearen arabera, obligazio hauek finantzatu ziren diruzaintzako gerakinarekin:

Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak

Partida		Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak
Kodea	Azalpena	
1 0000 226.338.00.99 2016	HERRIKO JAIK	2400,00
1 0000 481.340.00.01 2016	KIROL ERAKUNDEEI SUBENTZIOAK	2600,00
1 0000 622.340.00.01 2016	KIROL EKIPAMENDUAK	32467,28
1 0000.210.153.40.01 2017	AZPIEGITURA ETA ONDASUNEN MANTEN.	39497,42
1 0000.211.132.00.01 2017	AGUAZILAREN BULEGO MANTENIMENDUA	2859,85
1 0000.211.231.00.01 2017	BETANI; ETXE TUTELATUAREN MANTEN.	3094,94
1 0000.212.153.40.01 2017	MAKINERIA, INSTALAZIOAK, TRESNERIA MANTEN.	3899,68
1 0000.221.132.00.05 2017	AGUAZILAREN ERROPAK	701,40
1 0000.221.153.40.05 2017	LANTALDEAREN ARROPAK	1587,53
1 0000.222.920.00.05 2017	ZERBITZU INFORMATIKOAK	4708,83
1 0000.227.231.00.01 2017	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	14633,60
1 0000.481.330.00.01 2017	KULTUR ERAKUNDEEI SUBENTZIOAK	2422,65
1 0000.481.337.00.01 2017	BESTELAKO KOMUNITATE ETA GIZARTE ZERBITZ	510,78
1 0000.481.920.00.01 2017	IRABAZIZKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEAK	1326,44



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.601.150.00.01 2017	AZPIEGITURA ETA URBANIZAZIOA	5800,24
1 0000.601.153.00.02 2017	HERRI BIDEAK	17296,47
1 0000.643.432.00.01 2017	TURISMO PROIEKTUAK	7635,90
GUZTIRA		143.443,00

Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazio horiek eragin zuten aurrekontuaren likidazioan ez betetzea aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua.

Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazio horiek etorkizunean gastu finkoa handitzea ekarriko dute bi kontzeptu hauei dagokienez:

Partida		Diruzaintza gerakinarekin finantzaturako obligazioak
Kodea	Azalpena	
1 0000.211.231.00.01 2017	BETANI; ETXE TUTELATUAREN MANTEN.	3094,94
1 0000.227.231.00.01 2017	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	14633,60
GUZTIRA		17.728,54

Hala, hurrengo ekitaldietan eragingo duten gastu handiagoa 17.728,54 eurokoa izango dela aurre ikusten da.

Bestalde, entitatearen aurrezki garbia honakoa izan da, aurreko urteko likidazioan eta aurtengo aurrekontuan:

	Aurreko urteko likidazioan	Uneko aurrekontuan
Sarrera arruntak	2.111.486,92	2.175.646,16
		1.759.373,60
Gastu arruntak	1.561.512,59	
Aurrezki garbia	421.738,43	284.303,60

Gainera, ezusteko eragiketarik izan ezean, goian aipatutako gastu finko berri horretaz gain, sarrera arruntak eta gainerako gastu arruntak iraunkorrak izango dira, ez baita espero hurrengo ekitaldietan gorabehera handirik gertatzerik horietan.

Ondorioz, entitatearen aurrezki garbia nahikoa da aurreko urtean diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioek eragindako gastu finko handiagoari aurre egin ahal izateko hurrengo ekitaldietan.

ONDORIOAK

Aurreko urteko exekuzioa, uneko aurrekontua eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ikusirik, ezusteko eragiketarik gertatu ezean, bermatuta dago entitatearen finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako.

*Asteasun, 2018ko urriaren 26an
Bitarteko Idazkari Kontu hartzailea”.*

Beraz, 2017ko Udal aurrekontuaren likidazioari dagokion Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena Udalbatzarrari zuzendu eta komunikatu zaio.

SEIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: Emakundek “GIZONOK ESAN ETA EGIN” kanpaña jarri du martxan; ekintza konkrituak eginez gizonen egunerokotasunean berdintasunarekin duten konpromisoa handitzeko du helburu. Horretarako aplikazio informatikoa sortu dute, matxismo maila aztertzen, konpromisoak aukeratzen eta praktikan jartzen eta horien jarraipena egiten. Udalbatzarrera kanpaña hori ekarri du zabaltzeko asmoarekin.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 21:15 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko urriaren 30ean.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea